EGIA 2010eko Irailak 11 tik 19ra
PORRONTXO JAIAK

Manifestua

Jai Herrikoiak BULTZATUZ

Hiria (herria, auzoa) pertsonen arteko solasa da, akzioa, joan-etorria, talka. Etenik gabeko mugimendua.

Herria (auzoa, hiria), indar-eremua da, tentsio-gunea, desioen esparrua, sentimenduen aldea.

Auzoa (hiria, herria), itxura morfologikotik haratago, lurralderik gabeko lurraldea da. Auzotarrok (hiritarrok, herritarrok) gure bultzadekin, gure ufadekin, gure hatsarekin, gure pausoekin eraikitzen dugu atergabe.

Hiria (herria, auzoa) espazio politikoa da.

Espazioan eragiteak bihurtzen gaitu herritar (auzotar, hiritar). Bestela ere bai, gizon-emakumeon eta taldeon akziorik ezean, ez da herririk (auzorik, hiririk).

Plazetan elkartuz, auzolanean sortuz, eztabaidak piztuz, museoak bisitatuz edo, besterik gabe, asfaltoa zapalduz, auzoa (hiria, herria) eraiki.

Jaiak antolatuz eta jaietan parte hartuz.

Herri-jaiak asmatuz. Jai herrikoiak biziz.

Buru-belarri gabiltza jaien eta herri-kulturaren dinamizazioan. Badira urte mordoa. Zeregin honetan han eta hemen aritzen garen gizon-emakumeok zein taldeok, lotura batek hurreratzen gaitu elkarrengana. Denboraren poderioz, kultura-mugimendua sortu da. Amarauna.

Eskolak bezala, sare horrek hamaika izaera elkartzen ditu; hodeien moduan, forma ugari onetsi; eta kameleoien antzo, kolore anitz erakutsi.

Eskultoreak harria zizelkatu nola, hala ekarri du arian-arian mugimenduak jai eredu bat; hala zaindu, mimatu eta aberastu, bere baitan ilusioa, umorea, parte hartzea, adierazpen askatasuna, ironia, elkartasuna, eta abar bilbatuz.

Tokian tokiko hainbat erakunde publiko eta alderdi politiko, baina, sator-lanean dabiltza eredua pitzatu nahian, ahuldu guran. Hala da aspalditik. Azkenaldion, gainera, egoerak okerrera egin du nabarmen. Modu askotan egin ere: antolatzaileei erasoz; protagonistak larrutuz; debekuak ezarriz; ekimenak alboratuz; espazioak murriztuz.

Baita eredua mimetizatuz, asimilatuz eta, azkenean, itxuraldatuz ere, hiritarroi (herritarroi, auzotarroi) kasu askotan McProposamenak helarazten eta, ardiak bagina lez, gure parte hartzea hesitzen. Izan ere, Administrazioak hiritar (herritar, auzotar) bilakatu nahi du!

Oztopoak oztopo eta erasoak eraso, herri-jaien mugimenduak bizirik dirau. Herritarrok (auzotarrok, hiritarrok) festetan modu aktibo batean esku hartzeko premia sumatzen dugu. Baina bizirik ez eze, mugimendua eta eredua arrakastatsuak ere badira. Kultura-eskaintzan arrakastatsu; parte hartzean arrakastatsu; auzoen (hirien, herrien) dinamizazioan arrakastatsu; sormenean arrakastatsu; umorean arrakastatsu.

Bai eta ekonomia-motor gisa ere.

Labur esateko, herri-jaien mugimendua osatzen dugun guztiok, ereduaren izatea eta baliotasuna berresteaz bat, haren kontrako erasoak ere azpimarratu eta salatu nahi ditugu.

Horren aurrean, elkartzeko beharra ikusten dugu. Zertarako?

Hausnarketa egiteko. Esperientziak elkarri kontatzeko. Inoren ekimenen berri izateko. Ideiak plazaratzeko. Berba bitan esanda, jai herrikoien ereduari buruzko ikuspuntuak mahai gainean jartzeko, hura osatuz, aberastuz, definituz, bateratuz.

Aldi berean, mugimendua trinkotzera joko dugu. Asmo horretan, izena emango diogu izanari. Herri-jai mugimendurik gabe, gure ustez, nekez ulertu ahal baitira jaiak. Festara biltzen eta festan batzen gaituen esparru komunetik lan egingo dugu.

Hausnarketa publiko eta partehartzailea dugu helburu, jaiak defendatzeko eta hobetzeko xedez.

Gure arteko pentsaera eta ikuspuntu diferenteetatik abiatuta, beharrean hasi gara. Eta indartsu egiten gaituena aniztasuna dela jakitun, gogoeta-prozesu honetan parte hartzera gonbidatu nahi dugu kultura-eragile oro. Hiritar (herritar, auzotar) oro.

"PORRONTXO JAIAK" ABESTIA

Neska mutilak
haurrak eta helduak
danok pozez
kuadrilatan,
gora Porrontxo,
aupa atorrantiak
gozatu gure jaietan
Urtero ospatzen ditugu
jai zoragarriak
gure lanaz auzora
pozez erakutsiak
kuadrila guztien artean
erabakiak
horregatik diogu direla
guriak
Giro herrikoia dago
gaur gure auzoan
amnistiaren ametsa
beti guru buruan
ikurrina jarrita dago
gure etxean
danok pozez salto ta
dantza kalean

INFO+ www.porrontxojaiak.org porrontxojaiak@porrontxojaiak.org

aizu Jaiak ondo pasa!

ALKOHOLAK ETA TABAKOAK EZ ZAITZATELA BEREGANATU BERE ERABILPENA ZURE ESKU DAGO!

Festa batzordeak eskerrak ematen dizkie porrontxo jai hauen egitaraua egiten lagundu duten dendari eta auzokide guztiei.

Bestetik, auzokideak animatzen ditugu terrazak apain ditzaten, ikurriña, kolorezko globoekin edo nahi duten bezala.

La comisión de fiestas agradece a los vecinos y comerciantes del barrio que con su ayuda han colaborado en la elaboración de este programa de fiestas.

Por otro lado, animamos a los vecinos a que colaboren en fiestas, adornando los balcones con la ikurriña, con globos de colores o como mejor se les ocurra.

Auzokideei eskatzen diegu ostiral arratsaldetik larunbata gaua arte, ekitaldiak direla eta, Tejeria kaleko goiko aldean **EZ APARKATZEA**. Mila esker.

Pedimos la colaboración de l@s vecin@s para que desde el viernes a la tarde hasta el sabado a la noche ***NO APARQUEN*** *sus coches en la parte alta de Tejeria por motivo de actividades festivas. Muchas gracias.*

OHARRA: Antolatzaileek ez dute bere gain hartuko egitarau honez kanpo gerta litezkeen ezbehar edo istripuen ardurarik.

NOTA: La organización no se hace responsable de los percances que pudieran ocurrir al margen de los actos organizados.

PORRONTX

Irailak

egiak

11 Porrontxolarrea
larunbata

11:00 Inauterietako konpartsen erakustaldia.

17:00 Kalejira auzoan Porrontxo eta Porrontxina, buruhandi, hankapalo, trikitilari eta malabaristekin, sudurra jantzita eta lapikoekin protesta ekitaldia "batukada".

18:00 Haurrentzako jolasak Plaza Handin ANTXETAREN eskutik.

19:00 TREBESKA dantza taldearen emanaldia Plaza Handin.

20:00 Sorgin gaua: Akelarrea suaren inguruan Plaza Handin. Sagardo eta Pintxo dastaketa.

12-13-14

igandea

10:30 XIII. Herri Krosa trikitilariek alaituta.

astelehena

17:00 Haurrentzako margo tailerra (pintzelak norberak etxetik ekarri) eta erakusketa.Txokolate jatea Plaza Handin.

21:00 Korto emanaldia Plaza Handin.

asteartea

17:00 Haur eta gazteentzako jolasak Plaza Handin.

18:00 Talo tailerra helduentzat trikitilariek alaituta.

19:30 Kapoeira erakustaldia Plaza Handin.

15 Gastroporrontxo eguna
asteazkena

17:00 AMALURekin apar festa, puzgarriak eta futbolin erraldoia Plaza Handin. Donostia Kultura.

18:00 "Porrontxo Jaietako Tabernen II. Pintxo Lehiaketa", auzoko jende ezagunak eta elkarteetako kideek osaturiko epaimahaiarekin eta trikitilariek alaituta.

20:00 Frantziskotarretan ERIOA ETA DONTZEIA antzerkia, Ramon Agirre, Itziar Ituño, Asier Osa eta Fito Rodriguezen eskutik.

16 Gora gu ta gutarrak!
osteguna

16:40 Aurpegi margotzea, Plaza Gorrin.

17:00 Buruhandi eta erraldoiak LAGUNAK txarangak lagunduta.

17:30 Haur jaitsiera Porrontxo eta Porrontxina eta buruhandiekin.

18:30 Dantzaldia haurrentzat Plaza Handin, Olatz eta Xabirekin.

19:00 Koadrilentzako merienda eta karritoen montaketa Atotxan.

20:00 Pregoia eta txupinazoa.

20:01 Koadrilen igoera Porrontxo eta Porrontxinarekin, LAGUNAK txarangak lagunduta.

21:00 Batukada TAUPADA taldearekin.

22:00 Koadrilen karaokea Plaza Berrin.

22:30 Dantzaldia LAIOTZ taldearekin Plaza Handin.

22:30 Baldarrak txaranga auzoan zehar.

01:00 Koadrilen jolasak Plaza Handin.

17 Haur eta gazte eguna
OSTIRALA

11:00 Haurren entzierroa Tejeria kalean.

12:00 Hipo eta Tomax pailazoak, Plaza Handin. Donostia Kultura.

12:00 Hamabitakoa trikitilariekin, Plaza Gorrin.

14:00 Haur bazkaria Gladys Enea parkean.

14:00 Norberak prestatutakoarekin bazkaria Plaza Handin.

16:00 Haurrentzat ipuin kontalaria Gladys Enean.

17:00 Xake txapelketa Plaza Handin Groseko xake taldearen eskutik.

17:00 Trikitilariak Aldakoneako Zahar Egoitzan.

17:00 Buruhandi eta erraldoiak, Porrontxo eta Porrontxina eta Bolinga Sound System.

17:00 Bertso poteoa auzoan zehar.

18:00 Disko festa ANTXETArekin eta ekitaldi sorpresa gazteentzat Plaza Handin.

20:00 INCANSABLES txaranga.

20:00 Guatekea Plaza Berrin.

21:30 Zezen suzkoa.

22:30 Dantzaldia HAITZAMA taldearekin Plaza Handin.

23:00 DJa.

01:00 Koadrilen jokoak Plaza Handin. Amaitzean Oso Bolinga Sound System.

04:00 Txokolate jatea Plaza Handin.

Gazte Egun Tropikala
Ametzagaña Aitor Ikastolan

16:00 3x3 saskibaloi txapelketa + DJa.

17:30 Graffiti erakustaldia.

18:00 Malabare tailerra.

18:30 Batukada tailerra eta mojitoak barran.

Gazte Eguna
Tejeria kalean

19:00 Gazte jolasak eta lokaletako sofa jaitsiera.

20:30 Gazte afaria.

21:30 Sudurluze auzoko bertso eskolaren eskutik.

23:00 Brilet herrikoia eta kalejira Bolinga Sound System-ekin.

18 Elkartasun Eguna
LARUNBATA

Potejakue bidea egun osoan zehar, ia bidea osatzeko gai garen!

08:00 LAGUNAK txaranga.

10:00 Haurrentzako zirko tailerra Gladys Enean.

10:30 Alde zaharreko ttuntturroak-diana.

11:00 Kriki eta Kroko Gladys Enean.

11:00 ZAZPIRETAN LEHENAK joteroak Plaza Handin.

11:30 "Porrontxo Jaiak 1. Sagardo Eguna" Plaza Handin.

12:00 Auzoko patata tortila txapelketa.

2010 30. URTEURRENA

14:30 Bolinga Sound System.
16:00 Porrontxoetako eskubaloi txapelketa kiroldegian, EGIA ESKUBALOIAK antolatuta.
16:00 Potejakue bidearen hasiera.
16:30 Helduen pala finalak, trikitilariek alaituta.
17:00 Porrontxoetako argazki erakusketa trikitilariek alaituta.
17:00 Kronoeskalada.
17:00 Buruhandi eta erraldoiak THE JOSELONTXOS txarangak lagunduta.
18:00 Haurrentzako herri kirolak Plaza Handin.
18:00 Pelukeria saioa koadriletako kideekin eta birziklatutako arropa desfilea txosna gunean.
18:30 Haurren pilota finalak.
19:30 Kale antzerkia ALPROJA konpainiaren "Osatzen" lana Plaza Berritik abiatuta.
20:00 TREBESKA dantza taldearen ekitaldia Irutxulo Plazan.
20:30 Zezen suzkoa.
21:00 Koadrilen afaria, kafe eta koparekin, Tejerian. Brindisa eta Porrontxoetako abestia.
22:30 THE JOSELONTXOS txaranga.
23:00 Jam Session Tejerian, atsedenaldian irrintzi, korroskada eta sudur txapelketa.
23:00 Dantzaldia TRAKETS taldearekin, Plaza Handin.
23:00 DJa.
00:00 BALDARRAK txaranga.
00:30 Kalejira, Porrontxo, Porrontxina eta zanpanzarrekin. Aurresku herrikoia.

19 Igandea — Euskal Jaia

07:00 Gosaria: Oilaskoak, Plaza Handin.
08:30 JATORRENAK txaranga.
09:00 Entzierroa Tejeria kalean.
11:00 Helduen pilota finalak trikitilariek girotuta.
12:00 "I. Haur danborrada" Porrontxo eta Porrontxinarekin.
12:00 Bertso saioa Plaza Handin.
12:00 Sagardo dastatzea Plaza Handin.
14:30 Bazkari herrikoia Plaza Handin, Donosti-gain, Ur-Zaleak eta Arrano elkarteen laguntzarekin.
17:00 Herri kirolak, trikitilariek girotuta Plaza Handin.
19:00 Sardina jatea Plaza Handin.
19:00 Erromeria LAKET taldearekin Plaza Handin.
20:00 INCANSABLES txaranga.
21:30 Koadrilen kalejira auzoan, Porrontxo eta Porrontxinarekin.
22:00 Azken traka.
00:00 Gui ar de guorld.

26 Igandea

11:00 Ur-Zaleak elkartearen 75. urteurreneko ospakizuneko pilota txapelketaren finalak.

INFO+ NAHI BADUZUE HEMEN AURKITUKO GAITUZUE

www.porrontxojaiak.org
porrontxojaiak@porrontxojaiak.org

PORRONTXO JAIAK
2010
debekatuak
baina ez garraiuak

Porrontxo Jaiak 2010
EGIA
IRAILAK 13TIK 19RA